



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 26a

13. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko banku publiko gisa jardun ahal izanen duen organismo bat sor dezan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-23/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita "Datu demografikoei eta horiek hezkuntza sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanak" izeneko aurrekontu-lerrotik heldu den azterlana aurkez dezan. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/MOC-00034. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legea alda dezan eta erregelamendu bidezko garapen zuzen bat ezar dezan. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-23/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan, halako moduan non 136. artikuluan jasoko baita ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestea okupazio ilegala pairatzen dutenak, okupazioak dirauen bitartean. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-23/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arbuia dezan langileen gaixotasun arruntaren kudeaketa mutualitateen esku uzte aldera Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazioen Ministerioak eta Lan istripuen Mutualitateen Elkarteak sinatutako akordioa. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (10. or.).
- 11-23/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Industriarako Plana taxutzen has dadin. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (12. or.).
- 11-23/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita lehen-tasuna eman diezaion taldeen mahai bat eratzeari, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako otsai-laren 4ko 4/2019 Foru Legearen garapena jorratzekoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (13. or.).

—11-23/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua. Osoko Bilkuran izapidetzea (14. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-23/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko senataria izendatzen baita (15. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-23/MOC-00031. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen mar-txoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-kita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioak

Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuak araubide berri bat ezartzen du gure foru erkidegoan protesiei eta ortopedia-aparatuei dagokionez, urtarrilaren 22ko SCB/45/2019 Aginduak ezarritakoa betetzeko.

Foru dekretu hori aurrerapauso bat da nafarrei gastuak itzultzearen arloan; izan ere, itzulketa sal-tokiari zuzenean egiteko aukera ematen du, ez

dezan herritarrak diru hori aurreratu behar, baina aldi berean murrizketa bat ezartzen die, murrizketa berri eta zabalago batzuk ezartzen baititu produktu ortoprotesikoak erosteko finantzaketa lortzeko orduan.

Zehazki, foru dekretuak parekatu egiten ditu publikoarentzako salmenta-prezioa eta gehieneko finantzaketa-indizea, halako moduan non inork kalitate handiagoko produktu ortoprotesiko bat behar duenean oso-osorik ordainduko duen bere diruarekin, eta hori atzerapauso larri bat da orain arteko finantzaketari dagokionez. Gogora dezagun orain arte erosketa hori egin zitekeela, baldin eta pazienteak prezioan zegoen aldea bere gain hartzen bazuen.

Badira, gainera, aldatzea merezi duten beste murrizketa batzuk; esate baterako, mediku espezialisten kopuru mugatu batera mugatzea preskripzio-ahalmena, zeina indargabetutako araudian baino txikiagoa baita, produktu horien preskripzio-rako irizpide murriztaileak handitzea, produktumoten artean ezarritako bateraezintasunak, edo "baimen berezia" behar duen produktu-kopurua.

Aldaketa horiek, zeinetarako Nafarroak esku-mena bai baitu, paziente-elkarteekin, gizarte-entitateekin eta zentro ortoprotesikoekin batera egin behar dira.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua alda dezan, halako moduan kendu eginen baitira erabilzaileek kalitate handiagoko produktu ortoprotesiko bat finantzatzeko aukera dela-eta, preskripzio-ahalmena mediku espezialisten kopuru mugatu batera mugatzea dela-eta nahiz baimen berezia behar

duen produktu-kopurua dela-eta bertan jasotzen diren eskubide-murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa horiek paziente-elkarteekin, gizarte-entitateekin eta zentro orto-protetikoen batera egin ditzan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-23/MOC-00032. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko banku publiko gisa jardun ahal izanen duen organismo bat sor dezan**

### *MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egiazko banku publiko gisa jardun ahal izanen duen organismo bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Finantza-sektorea sektore estrategikoa da. Haren erabakiak eta zerbitzuak erabakigarriak dira edozein gizarteren garapen ekonomikoan. Alde batetik, enpresen inbertsioaren nahiz inbertsio sozialaren arloko erabakiak horien finantza-

ahalmenaren araberakoak izan ohi dira, eta ahalmen horrek mugatu egiten du negozio bat abiarazteko edo etxebizitza bat erosteko ahalmena eta enpresen likidezia ziurtatzekoa. Beste alde batetik, bankuek gordailuak eta aurrezkiak kudeatzeko zerbitzua ere ematen dute –funtsezkoa da hori norberaren nahiz familien ekonomiaren kudeaketan– eta kontrolatu egiten dituzte ordainketa digitalen baliabide gehien-gehienak eta transakzio ekonomikoetarako funtsezkoa den informazioa.

Berez oso eztabaidagarria baldin bada gizarte baten garapenean eragin hain handiko erabakiak hartzea esparru pribatuan ez beste inon, 2008ko krisiaz geroztik finantza-sistemaren berregituratze-prozesu bat gertatu da hala estatuan nola Nafarroan; horren ondorioz, nabarmen areagotu da banku-sektorearen kontzentrazioa, hainbeste non bost finantza-entitatek kontrolatzen baitute sektorearen % 80 Nafarroan.

Errealitate horrek agerian uzten du Nafarroan finantza-sektorea oligopolio bihurtu dela inondik ere. Hortaz, eztabaida jada ezin da soilik mugatu ikustera ea halako munta handiko sektore bat eragile pribatuen erabakimenaren mende bakarrik egon behar duen, ezpada ea, gainera, Nafarroa bezalako erkidego batean jasangarria ote den finantza-zerbitzuen nahiz finantzaketa arloko erabaki estrategikoen kudeaketa oligopolistikoa.

Gure ustez, adostasuna zabala da arlo horretan: sektore publikoak –kasu honetan, Nafarroako Gobernuak– ahalmena izan behar du enpresa txiki eta ertainen likidezia errazteko, ekintzaitza sustatzeko, familiei finantzaketa lortu ahal izatea

errazteko edo landa-eremuetan finantza-zerbitzuak bermatzeko. Uste dugu adostasuna dagoela, orobat, gure erkidegoaren funtsezko inbertsioak –publikoak nahiz pribatuak– finantzatzeko beharrari buruz, adibidez etxebizitza publiko eta pribatuen sustapena eta zaharberritzea, I+G+i arloko inbertsioak edo modernizazio eta garapen ekonomikoko funtsezko proiektuetako inbertsioa.

Adostasun horiek erakusten dutena da beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak Nafarroako finantza-sisteman parte hartuko duen eragile bat izatea, halako moduan non sistema horretan orobat hartuko diren interes orokorrean oinarritutako erabakiak, eta ez soilik banku pribatuen pizgarrietan oinarritutakoak. Horregatik guztiagatik, gure ustez koherentea da eskatzea egiazko banku publiko gisa jardun ahal izanen duen organismo bat egon dadin, finantza etikoen printzipioetan

oinarritua, gure erkidegoaren garapen ekonomiko eta sozialean izan beharreko eginkizuna izanen duena eta eta sektoreko logika oligopolistikoa moztuko duen lehia handiagoa ahalbidetuko duena.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egiazko banku publiko gisa jardun ahal izanen duen organismo bat sor dezan, finantza-sisteman bitartekotza egitera bideratua, erabakiak interes orokorraren arabera hartuko dituen organismo bat dagoela ziurtatzeko xedez, sistemaren funtzio soziala bermatzeko duena eta sektorean lehia areagotzea lortuko duena.

Iruñean, 2023ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

## **11-23/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita "Datu demografikoei eta horiek hezkuntza sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanak" izeneko aurrekontu-lerrotik heldu den azterlana aurkez dezan**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita "Datu demografikoei eta horiek hezkuntza sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanak" izeneko aurrekontu-lerrotik heldu den azterlana aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Pedro González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Espainiako gainontzeko erkidegoetan bezala, azken urteotako joera demografikoak jaiotzen behar bada nabarmena erakutsi du Nafarroan; hortaz, asko jaitsi da eskola-adineko biztanleen beharrezanean erantzun egokia emateko hezkuntza-sisteman behar diren tokien kopurua.

Errealitate kezkarri hori datu kezkarri baten bidez ari da agerian geratzen: hasi berri den 2023-2024 ikasturtea barne hartuta, jada hamabi ikasturtez jarraian jaitsi da Nafarroako hezkuntza-sisteman sartzen diren neska-mutikoen kopurua. Hau da, azken hamarkada honetan %30 ikasle gutxiago daukagu Nafarroako hezkuntza-sisteman.

Bestalde, sare publiko eta itunduko langileekin eginiko hitzarmenetatik heldu diren erabakien ondorioz eta COVID-19aren pandemiak eragindako egoeretatik heldu den eskola-antolamendu berria dela-eta hezkuntza-sisteman jarritako dotazioen ondorioz, igo egin da irakasleen kopurua Nafarroako hezkuntza-sistemako etapa guztietan -2.000 irakasle baino gehiagoko kopuruan igo ere-, baldin eta Nafarroan azken 10 urteotan izan den irakasle-kopuruari erreparatzen badiogu.

Kopuru horretatik ateratzen den argazkia argi dago: %30 gehiago dira irakasleak, eta %30 gutxiago ikasleak.

Egoera horrek, zeina Espainiako gainontzeko erkidegoetan berdintsua baita, muntako ondorioak dauzka

- Hezkuntza Departamentuarentzat, heldu diren 10 urteetarako plangintza estrategikoa presatu behar baitu.

- Gizartearentzat oro har eta familientzat bereziki, zeren eta, hartzen diren erabakien arabera, ukituta gera baitaiteke oinarritzko printzipio bat, zeina baita hezkuntzaren zerbitzu publikoaren prestazioa eta seme-alabentzat nahi den hezkuntza hautatzeko askatasuna, Konstituzioan jaso.

- Eta, jakina, lan-izaera du, irakaskuntza publiko nahiz itunduko milaka langileri eragiten dion neurrian.

Hori dela-eta, zenbait autonomia-erkidegok neurriak hartu dituzte jada ratioak murrizteko, eta sindikatuekiko akordioak jorratu dituzte murrizketa horiek gauzatu ahal izateko. Nafarroan, irakaskuntza publikoko sindikatuek ratioak jaisteko proposamen lineal bat aurkeztu zuten iragan ikasturtearen amaiera aldean, eta proposamen hura Parlamentu honetan eztabaidatu zen.

Auzia konplexua da, eta, noski, ondorioak dituen gero hezkuntza, gizarte nahiz lan arloan, beharrezkoa da konponbideak bilatzea gure

hezkuntza-sistemaren kalitatea handitzen lagunduko duen agertoki bat lortzeko, aurkezten ahal diren aukera ezberdinak errespetatuta.

Eta horretarako, beste ezer baino lehen informazioa behar da. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 35/2022 Foru Legean 25.000 euroko aurrekontu-lerro bat jaso zen, "Datu demografikoei eta horiek hezkuntza sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanak" izenekoa.

Behar-beharrezkoa da analisi hori egitea, egungo egoeraren nahiz datozen urteotan izan dezakegunaren hasierako diagnostikoa egin ahal izateko, hartara bermatu ahal izanzen baitira kalitatezko sistema bat izatea ziurtatuko duten ratioak, inklusio eta ekitate gorenarekin. Egoerari heltzeko lehendabiziko urrats horrek ahalbidetuko luke plan estrategikoa bat ezartzea hezkuntza-sistemaren gaineko plangintza orokorrari, ikastetxeei, ikasgelei, irakasleei, zerbitzuei... dagokienez, eta bide emanen lieke hezkuntza-arloko eragile guztien arteko lankidetzari eta eztabaida eraikitzaileari.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak

- Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2023-2024 ikasturteko lehen hiruhilekoa bukatu aitzin aurkez dezan Legebiltzarrean datozen urteetarako proiektioari eta egoerari azterlan osoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 35/2022 Foru Legean 25.000 euroko aurrekontu-lerro bat jaso zen, "Datu demografikoei eta horiek hezkuntza sisteman eta ratioetan duten eraginari buruzko azterlanak" izenekoetik heldu dena.

- Behin azterlan hori aurkeztuta, azterlanean jasotzen diren datuen gaineko ekarpenak egiteko aldi bat abiaraz dadin, foru-erkidegoko hezkuntza-arloko sektoreen arteko eztabaida eta parte-hartzea ahalbidetuko duena.

Iruñean, 2023ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **11-23/MOC-00034. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legea alda dezan eta erregelamendu bidezko garapen zuzen bat ezar dezan**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legea alda dezan eta erregelamendu bidezko garapen zuzen bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

"Nafarroako kultur ondarea berebiziko balioa duen ondasuna da, kontserbatzea ez ezik, handitzea eta ezagutaraztea ere merezi duena, horrela Nafarroa bere kulturaren finkatua egonen baita". Hori dio, zioen azalpenean, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak.

Beraz, foru lege honen justifikazioa eta esanahia honako hau da: Nafarroako kultur ondarea zaintzeko eta hurrengo belaunaldien eskuetan jartzeko tresna efizientea izatea, Nafarroaren nortasunaren ondasun preziatu eta ezinbestekoa baita ondare hori. "XXI. mendean –zioen azalpenean esaten denez–, nahitaezkoa da kultur ondarea kontserbatu, babestu, ugaritu eta zabaltzeko lana-

rekin jarraitzea, ulertu behar baita Nafarroako herriaren sustraietan dagoen ondasun bat dela, ahalik eta hobekien utzi behar zaiena hurrengo belaunaldiei".

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluko zenbait epigrafeetan jasotzen da kulturaren gaineko eskumen osoa, estatuarekin koordinaturik: historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia, eta zientzia arloko ondarearen gainekoa ere –horrek, halere, ez ditu ezertan galaraziko ondare hori esportazioaren eta lapurretaren aurka babes-teko estatuak dituen ahalmenak–, estatuaren titulartasunekoak ez diren artxibo, liburutegi, museo, hemeroteka eta gainerako kultur gordailuko zentroak eta, azkenik, arte ederren sustapen eta irakaskuntzarekin lotura duten erakundeak.

XXI. mende honen hirugarren hamarkadan, ordea, ondarearen kontserbazioa ezin da eragozpen bihurtu klima-larrialdiaren aurkako borrokan, neurri urgenceak eta erradikalak hartu beharra dago-eta gizartearen arlo guztietan. Trantsizio energetikoan klima-neutraltasuna nahiz energia-eguragarritasun justua betetzea ahalbidetzen ari den neurrietako bat da autokontsumoa, baina hori gure ondarea mantentzearekin batera egin behar da inondik ere. Trantsizio energetikoan autokontsumoaren eraginkortasuna handiagoa izan dadin, kokaguneak ahal den eta gehien izan behar dira.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea alda dezan eta behar bezalako erregelamendu-garapena ezar dezan, halako moduan non bateragarriak izanen baitira Nafarroako ondare arkitektonikoaren kontserbaziorako bermeak eta energia efizientziaren maximizazioa eta lege horrek ukitutako eraikinetan autokontsumo energetiko berriztagarriko instalazioak paratzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-23/MOC-00035. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan, halako moduan non 136. artikuluan jasoko baita ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestea okupazio ilegala pairatzen dutenak, okupazioak dirauen bitartean**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea alda dezan, halako moduan non 136. artikuluan jasoko baita ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestea okupazio ilegala pairatzen dutenak, okupazioak dirauen bitartean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Okupazio ilegalaren aurkako neurriei eta ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzetik salbuesteari buruzko mozioa

#### **ZIOEN AZALPENA**

Azken hamarkadetan, okupazio-kasuak areagotu egin dira Espainian. Barne Ministerioak emandako datuen arabera, 2011 eta 2021 artean okupazio-kasuak % 450 areagotu dira Espainian. Espainian, egunean, 49 okupazio gertatzen dira batez beste. Azken urtean, legez kanpoko okupazioa % 18 areagotu da Espainian. Horri gehitu behar zaio pasa den urtean 7.059 kondena-epai

eman zirela “inkiokupazio” kasuetarako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuen arabera. Legez kanpoko okupazioak, gaur egun nazioko Gobernuak zurrizten duenak, gure Konstituzioan aitortutako eskubideak urratzen ditu, hala nola jabetza pribaturako eskubidea. Hala dio 33. artikulua: “Inori ez zaio bere ondasun eta eskubiderik kenduko, onura publikoko edo gizarte-intereseko arrazoi justifikaturik izan ezean, betiere kalte-ordain egokia emanez eta legeetan xedatutakoaren arabera” Jabetzaren babesarako eskubidea Kode Zibilean ere jasotzen da (348. artikulua), bai eta Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunean ere (17. 1. artikulua): “Pertsona orok du lege barruan eskuratu dituen ondasunen jabetzaz gozatzeko eskubidea, eta ondasunok erabili, xedatu eta oinordetzan uztekoa. Inori ere ezin zaio bere jabetzarik kendu, onura publikorako denean izan ezik; hala ere, legean jasotako kasuetan eta baldintzetan izango da, eta trukean, arrazoizko epe baten barruan, ondasunak galtzeagatik kalte-ordain zuzena emanda. Ondasunen erabilera legez arautu ahal izango da, interes orokorrerako beharrezkoa den heinean”. Gainera, Konstituzioaren 18.2. artikulua bizilekuaren bortxaezintasunerako oinarriko eskubidea bermatzen du: “Egoitza bortxaezina da. Bertara ezin da sartu, ezta erregistrorik egin ere, jabearen baimenik gabe edo epailearen ebazpenik gabe, delitua ageri-agerikoa denean izan ezik”.

Segurtasun juridikoa, jabetza eta askatasuna babestu beharreko ondasunak dira. Zentzugabea da higiezinaren jabeak konstituzio-eskubide horiez gabetzen dituzten horiek babesteko politikak izatea. Gure egungo ordenamendu juridikoak okupak babesten ditu legezko jabeen aurretik. Jabearen babesgabetasun egoera hori larritu egin da 2023ko maiatzaren 17tik aurrera, orduan onetsi baitzuen Senatuak Etxebizitza Lege berria.

Azken batean, egungo errealitatea da gaur egun gure ordenamendu juridikoa ez dela gai herritarrei beren jabetzaren edukitza eta gozamen baketsua behar bezala bermatzeko, egungo legebideek balantza okupen alde makurtzen baitute.



Jabetza pribatuaren babes eskasa eta prozesu judizialen mantsotasuna arazo larria dira jabeentzat, bai eta, zeharka bada ere, horien auzoentzat ere, horiek baitira egunetik egunera lege kanpoko maizter horiek okupatutako etxebizitzetan eta inguruetan eragiten dituzten irregulartasunen ondorioak pairatzen dituztenak.

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua etxebizitzarako eskubidea aitortzen du, eta adierazten du espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela, eta botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituztela, eskubide hori eragingarria izan dadin. Administrazioaren ardura da pertsona horiei babes sozialeko etxebizitza bat bermatzea. Eta horrek ez du justifikatzen gizabanako edo talde antolatuek, legezko bideetatik kanpo eta/edo etxebizitza-premia aitzakia hartua, berenak ez diren higiezin jabe egitea, horiez gozatzeko titulu baliodunik izan gabe ere. Estatua-ren ardura da, eta ez higiezina gogor lan eginez ordaintzen duen eta bidegabeki usurpatu edo okupatzen dioten jabearena.

Zuzenbide Estatu batek ezin du onartu gizabanako edo talde antolatuek, legezko bideetatik kanpo eta/edo etxebizitza-premia aitzakia hartua, berenak ez diren higiezin jabe egitea, horiez gozatzeko titulu baliodunik izan gabe ere. Jabetzaren gizarte-funtzioa ez da, batzuek irudiz uste duten moduan, partikular batek etxebizitza bat haren legezko jabeari egitatezko bidetik edo indarra erabilita kentzea. Jabeak duen eskubidea, kendutako jabetza berehala berreskuratzea, gure lege-sistemaren zimenduetan dago.

Ez dugu ahaztu behar jabego pribatua, instituzio soziala den aldetik, funtsezkoa dela klase ertain eta langileen oparotasunaren oinarri diren esfortzuen eta aurrezkiaren fruitua egituratzeko.

Gero eta gehiago dira bizitegi multzo jakin bateko legezko jabeen eta bertako etxebizitzaren bat okupatu dutenen arteko liskarrak eta protestak. Askotan, auzokideek zaintzaile pribatuak ere kontratatze beharrean aurkitzen dira okupazioaren aurka, delitu-egile horiek erakunde kriminal antolatuetako kide izaten baitira, eta horrek areagotu egiten baitu okupatu edo usurpatutako etxebizitzaren inguruko etxebizitzaren legezko jabeen segurtasun falta eta arriskua.

Hala, higiezin usurpazio edo okupazio delituak ez du urratzen soilik jabearen eskubide indibidual edo zilegia; aldiz, jabeen erkidego bateko auzokideen arteko bizikidetzaz aztoratzea ere ekartzen du askotan.

Higiezin okupazio delituaren egungo araubideak ez dio erantzun nahikorik ematen espainiar gehien kezka gero eta handiagoari; izan ere, bereziki gure herrialdeko eremu batzuetan gertatzen diren egoerek agerian uzten dute zenbait norbanako eta talde antolatuk, dirudienez inpunitatez, berenak ez diren etxebizitza edo bestelako higiezinak era ez-legitimoan hartzen dituztela eta gure Segurtasun Indar eta Kidegoek ez dutela jarduteko gaitasunik, legezko estaldurarik ez dutelako.

Administrazio desberdinek, beren eskumenen arabera, lagundu behar dute desberdintasun hori desagerrarazten. Voxek askotan eskatu du Diputatuen Kongresuan Zigor Kodea gogortzeko, bai eta autonomia-erkidegoetan ere, aurrekontuetarako akordioetan.

Hala ere, aurrerapausoak ematen jarraitu behar dugu, onartezina baita delitugilea okupazioaren biktimak baino babes handiagoa jasotzea. Legeak erantzun eraginkorra eman behar dio arazo honi. Ezinezkoa da okupak legezko jabeak baino babestuago egotea.

Beharrezkoa da legez kanpoko okupazioaren gaitza Administrazioaren arlo guztietatik borrokatzea, bai eta tokiko esparrutik ere. Horregatik, Nafarroako udalerrri eta toki korporazioek abian jarri behar dituzte beharrezkoak diren neurriak okupatutako higiezin jabeen aringarriak emateko.

Neurri horietako bat litzateke okupatutako higiezin jabeen higiezin gaineko zerga murriztea, jabe horiek usurpatu zaien higiezinaren gaineko zergak ordaintzen jarraitu behar baitute.

Jabearentzako kalteak nabarmen areagotzen dira "maizterrek" bere bizkar kontsumitzen dituzten horniduren kostuei eta higiezinak pairatzen dituzten ekintza bandalikoek aurre egin behar die-lako, berreskuratzen dituztenean oso hondatuta egoten baitira. Ez dira ezohikoak okupen estortsio-ekintzak, diru-kopuru bat eskatzen baitute etxebizitza uzteagatik; are gehiago, talde kriminalek hirugarrenei eskaintzen dizkiete aurretik usurpatu-riko etxebizitzak. Jabearentzako iraina noraino iristen den, badira elkarteak "okupazio-eskuliburuak" eskaintzen dituztenak eman beharreko pausuekin, Administrazioaren erabateko pasibotasunarekin –zenbaitetan diruz ere lagundu izan ditu halako taldeak–.

Gaur egun, egoerak okerrera egin du pairatzen ari garen gobernu sozialkomunistak pandemiaren kariatz hartutako neurriak direla-eta; izan ere, etxebizitzaren jabeak are gehiago zigortzen ditu, ezker sozialkomunista eta okupazioaren aldeko delitugileak zuritu egiten baititu aberatsen eta

pobreen arteko borroka bat dela esanez, besteren esfortzuen bizkar bizi nahi duten lotsagabeak besterik ez badira ere.

Hori guztia dela eta:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren aldaketak susta ditzan Nafarroako Toki Ogasunei buruzko

martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, halako moduan non 136. artikuluan jasoko baita ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita egonen direla okupazio ilegala pairatzen dutenak okupazioak dirauen bitartean.

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-23/MOC-00036. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita arbuia dezan langileen gaixotasun arrunten kudeaketa mutualitateen esku uzte aldera Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazioen Ministerioak eta Lan istripuen Mutualitateen Elkarteak sinatutako akordioa**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arbuia dezan langileen gaixotasun arrunten kudeaketa mutualitateen esku uzte aldera Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazioen Ministerioak eta Lan istripuen Mutualitateen Elkarteak sinatutako akordioa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

2023ko hasieran, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak eta AMATEk (laneko istripuen mutuak biltzen dituen elkarteak) hitzarmen bat prestatu zuten, langileen gaixotasun arrunten kudeaketa mutuen esku uzteko xedez. Hitzarmen horren zirriborroa autonomia-erkidegoei helarazi zitzaion eta horietako batzuek garatu egin dute. Esaterako, Andaluziak, Osasun eta Kontsumo Saileko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren 2023ko uztailaren 25eko Ebazpenaren bidez argitara eman zuen Andaluziako Juntako Osasun eta Kontsumo Saila eta Andaluziako Osasun Zerbitzuaren eta Ibermutuaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Bai eta hitzarmenari atxikitzen zaizkion mutua laguntzaileei dagokienez ere.

Mutualitate patronalen zerbitzuak kontratatuta dituzten enpresetako langileen ABE arrunten kudeaketa mutuen esku uzteko hitzarmen horren arabera, langileak bajaran daudenean, mutuen gain geratuko dira kontingentzia arruntak eta horiei loturiko azterketa, tratamendu, interbentzio eta errehabilitazioak.

Horrek aldatu egiten du gaur egungo logika eta osasun-zerbitzu publikoko medikuntzako langileak enpresa pribatu bateko medikuntza langileen esanetara jartzen ditu: aldi baterako ezintasunaren lehen egunetik mutuak tratamendu, azterketa edo interbentzio bat proposatuko balu eta zerbitzu publikoko medikuak garaiz erantzungo ez balu, baimena izanen luke nahi beste interbentzio egiteko. Mutuak gaixoaren prozesu diagnostiko osoa eta tratamendua har ditzake bere gain, bai eta azken txostena eman ere, ikuskaritza medikoari

alta proposatuz, eta horrela oinarrizko osasun laguntzako medikua ABE horien tratamendutik eta kontroletik kanpo geratuko litzateke. Mutuek berriz ere gainzama administratiboa ezartzen diote osasun-sistema publikoari, inolako justifikaziorik gabe.

Hitzarmen horiek beste urrats bat dira, beste bat, osasun-sistema publikoa pribatizatzeko bidean, sistema pribatuaren subsidiario bihurtzen baitute. Erabiltzen den aitzakia da osasun-sistema publikoen arreta-zama eta itxarote-zerrendak arintzea da, bai eta gertakizun arruntengatik aldi baterako ezintasun-prozesuen alferrikako iraupena murriztea ere. Begi bistakoa dirudi mutuek osasun-administrazioaren aurrean duten ahalmena indartzen dela eta mutuen irizpide ekonomizistei lehentasuna ematen zaiela irizpide klinikoen aldean arrazoi medikoagatiko laneko bajei dagokien prestazioa ezartzerakoan.

Hala, osasun-sistema publikoa desmuntatu egiten da eta sistema sanitario bikoitza sortzen da: bata, baja egoeran dauden langileei alta azkartuak emateko baliabide guztiak dituen, edo-

zein dela ere baja mota, lanekoa ala arrunta, eta bestea, pobretua, gainerako herritarrentzat.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arbuia dezan Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren eta AMATen (laneko istripuen mutuak biltzen dituen elkarteen) arteko hitzarmena, langileen gaixotasun arrunten kudeaketa mutuen esku uzteari buruzkoa.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Erreinuako Gobernua premia dezan istripuen mutuak Osasun Sistema Nazionalean integra ditzan, Osasunari buruzko Lege Orokorraren azken xedapenetan hirugarrenak ahalbidetzen duen moduan, gure inguruko gainerako herrialde garatuekin parekatze aldera.

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Txomin González Martínez

## 11-23/MOC-00037. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroako Industriarako Plana taxutzen has dadin

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Industriarako Plana taxutzen has dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2023ko irailaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Nafarroako Industria Plana taxutzen has dadin.

Zioen azalpena

Industria-jarduera da, zalantzarik gabe, Nafarroako Foru Komunitatearen oinarrietako bat. Prozesu eraldatzaile sakon batean murgilduta gauden honetan, beharrezkoa da, besteak beste, inbertsio handiak eta doikuntzak egitea langileen prestakuntza espezializatuan.

Nafarroan ezarriko den Industria Plana funtsezko tresna da gure enpresa-ehunduraren lehiakortasuna bermatu eta hobetzeko, halako moduz non aurrerapausoak emanen baitira ekoizpen jasangarri baterantz, balioa ematen duena, kalitatezko enplegua sortzen duena eta Nafarroako industriaren beharrezanean erantzunen dien prestakuntza-eskaintza emanen diguna.

Jada aurre egiten ari gara ibilgailu elektriko-ranzko eraldatze-prozesuei, nekazaritzako elikagaien sektorearen eraldatze digital eta jasangarriari edota hidrogeno berdearen moduko teknologiei, energiaren arloan garatzen ari garen aurrerabide guztiez gain. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak Nafarroako industrien eta gizarte eragileen eskutik ibili behar du, gure produkzio-sare indartsuari sostengua emateko eta hazkunde jasangarria bermatzeko.

Hala, ekonomiaren eta industriaren erronka berriak ikusirik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

Erabaki proposamena

1.- Nafarroako Industria Plana taxutzen has dadin, gure industria-sarearen lehiakortasuna hobetzeko, ekoizpen jasangarrira bideratutako trantsizio ekologiko eta digitalean aurrerapausoak emate aldera, eskaerari erantzunen dion maila guztietako prestakuntza-eskaintzarekin eta lankidetzaren publiko-pribatuarekin, bereziki I+G+Brekin zerikusia duen orotan, halako moduz non ahalbidetuko baitigu aurrera egitea balio erantsia duten produktuetan oinarritutako ekonomia baterantz, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortuko dituen.

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **11-23/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita lehentasuna eman diezaion taldeen mahai bat eratzeari, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen garapena jorratzekoa**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita lehentasuna eman diezaion taldeen mahai bat eratzeari, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen garapena jorratzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2023ko irailaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

2019ko otsailaren 4an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi zuen. Lege hori Nafarroako Gobernuak sustatu zuen, eta gehiengo osoz onetsi zez, azken hamarkadetan huts egindako proposamenen eta NUKFren baitan toki entitateekin izandako parte-hartze prozesu garrantzitsu baten ostean.

Toki Administrazioaren Erreformatarako Legea ezartzeko beharrezkoa da adostasuna eta gehiengo politikoa bilatzea Nafarroako Parlamentuan.

Iragan legegintzaldian ados jarri ginen toki finantzaketaren arloan, eta lege-esparru berri bat onetsi genuen Toki Ogasunen Funtserako nahiz etorkizuneko Toki Inbertsioei buruzko planetarako.

Aurrerabide positibo horiek alde batera utzita, beste auzi asko geratzen dira garatzeko eta ezartzeko toki entitateen egungo beharrezko erantzun bat emanen bazaie: tokiz gaindiko egitura berria, eskumenak argitzea, efizientziarako eta eragingarritasunerako tresnak ezartzea, langileak egonkortzeko prozesuak, administrazio elektronikoa, toki entitate txikienei babesa emateko egiturak eta tresnak... Hori guztia jorratzeke dugu oraindik.

Helburu horiek erdiesteko xedez, "talde parlamentario guztien arteko mahai baten sorrera, toki Administrazioaren Erreformataren garapenean aurrerabidea egiteko" proposamena sartu genuen Gobernuari babesa ematen diogun hiru indar politikoei sinatutako programa-akordioan.

Geroa Bairen ustez, hainbat arinen ekin behar zaio auzi horri, eta segur aski horretan bat etorriko gara udalgintza eta toki entitateak administrazioaren parterik garrantzitsuena direla uste dugun alderdi politikoak.

Horregatik aurkeztu dugu honako erabaki proposamen hau:

1.- Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du lehentasuna eman diezaion taldeen mahai bat eratzeari, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen garapena jorratzeko behar diren adostasunak bilatuko dituena.

Iruñean, 2023ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **11-23/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

2023ko irailaren 25ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

**1.** Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua. Mozioa 2023ko irailaren 22ko 12.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-23/ELC-00001. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko senataria izendatzen baita**

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko irailaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikularekin, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 12. artikularekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 235. artikularekin bat, Uxue Barcos Berruezo andrea izendatu du Nafarroako Foru Komunitateko senatari.

Iruñean, 2023ko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

